

Txillardegi

Idazlea

Noiz ikasiko?

■ Stormont, Bake-Elkarketak, Sinn Féin... Hauek dira egun hauetan, odol-isurketa lazgarrien ondoren, azkenean, Irlandaren etorkizunaz entzuten diren hitzak.

Britainia Nagusiko prentsa edo telebistari adi egonez gero, halere, besterik entzuten eta irakurtzen da. Oraindik ere *violencia sectaria* salatzten da, erlijio-borroka alegia; Irlandan dagoen gerrate latza sinesmenen arteko liskarra balitz bezala.

Irlanda militarki okupatu zuten britaindarrak, beste mila eskualde bezala. Oso aspaldian, 1649.

Baina jatorrian dagoen okupazio odoltsu hartaz, futsik ez. *Katolikoak* batetik, *protestanteak* bestetik. Inperialismoak ez du bere jokabidea hobeki mozarrotu beharrik ikusten. Cronwell, Orangistak... aipatu ere ez.

Okupazio militarren ondoren, britaindar administrazio arrotza inposatu zen, bertakoa uxatuz. Irlandaren ekonomia Londresen zerbitzuan jarri zen, instituzio politikoak ere Londresen esku, eta gaelikoa baztertu egin zen biziera publikotik.

Ondorioak berriro azpimarratu beharrik ez dago: Irlanda kolonia bat izan da geroztik, baina Europan kokatua. Ekonomiko uxtiatua, politikoki alienatua, hizkuntzaz erabat ingelestua eta errogabetua.

Arazoa, hala ere, *sectarian problem*, omen. Eta gaur ingeles inperialistak handik bota nahi izatea, bekatu latza. «Eman bitzate iskulak IRA-koek, eta gero... ikusiko» errepikatzen dute, sekulako azala erakutsiz.

Irlandako kasoa eta gu euskaldunona oso antzekoak direla esan beharrik ez dago. Etsaiak guk baino hobeki daki. Horretxegatik izkutatuta nahi du antz hori hemendik edo handik.

Espainiar agintarien ahotan bide bertik, sekula ez da aipatzen euskal nazio arazoa. Irlandan bezalaxe, hemengo arazoa beti arazo abstraktoa da. Nazio-arazoa ez-erik, beste zernahi.

Eta hauxe agertu da nabarmenki, Madrilek *terrorismoaren* kontrako borrokan onartu berriberria duen legegintzan.

Mundu guztiak daki (eta Madrilek inork baino hobeki) *desordenes callejeros* delakoak Euskal Herrian sortu eta hozitutako landarea direla. Teruelen, Murcian, Cáceresen, Alcorcónen, ez

dagoela inolako kale desordenurik. Gazte violentoak, hemen bakarrik sortzen direla. Harrigarria!

Eta hitz berria asmatu du: *la lucha contra el terrorismo de baja intensidad*. Bapo mutiak!

Denok dakigu hemen erretolika ustel horrek zer adierazi nahi duen: *la lucha contra la kale-borroka de la juventud abertzale*. Baina hauxe da, hain zuzen, Madrilek sekula santan aitortuko ez duena. Londresen *erlijio gudua* aipatzen den bezala (sektu gudua diote), Madrilen *desordenes callejeros* aipatzen dira. Ez besterik.

Euskal Herrian ez baitago Nazio-arazorik. Hauxe da Madrilek behin eta berriz, eta mila modutara, hedatzen duen mezu bakarra.

Baina gure arteko zozoenek ez dute hau ikusi nahi. Anti-abertzaleak, baita Urrestilakoak direnean ere, zernahi aitortzen dute zeruaz, lurraz, Europaz, eta nahi denaz. Baina hori ez. Hemen ez baitago konpondu gabeko nazio arazorik. Gehien gehienik *kale-istiluak* omen daude; behar bezala, *desordenes callejeros* dituak.

Mozorroketa-lan honetan, mutila izan zen Buesa analfabetoa. Hemengo eskola-arazoa (ia eskola *euskalduna* izango zen, ala *español*), *pública* ala *privada* bihurtu baitzuen; bertako batzuen txalo beroa bilduz, gainera!... Azalpen abstraktoa nahiago. Noski!

Gelditzen zitzaizkigun autogobernu apurrak kentzeko, Madrilek *unidad constitucional de la Monarquía* berba-sintema dotorea asmatu zuen orain dela 160 urte.

*Gero burguesía* abstraktoa egin zuen denen errudun (edo-ta *la izquierda* mamu narratz okaztagarria, entzulearen arabera); eta euskal arazo nazionala desagertu egin zen.

Euskal Herria, hala ere, EUSKAL herria da, hain zuzen. Eta gure arazoaren gakoa nazio-askatasunak eta nazio-hizkuntzak osatzen dute funtsean. Hain zuzen ere, beti izkutatzen zaigun bikotea.

Urte mordo bat joana da itsukeria hauetan. Eta etsaiak ez baitu bere hizkera aldatzeko beharrik sentitzen, gu betiko etsikerian somatzen gaituela ondorioztatu behar da. Nazio-askatasuna, Auto-Determinazioa, Euskara. Horra gure helburuak. Eta honetan ez dago moda igarokorrik.

Baina gure herriitsu honek, noiz ikusiko? ■

Maixux Rekalde



Ipar Irlandan bakeruntz

Aurrera doa bakeruntz Ipar Irlandako prozesua. Zailtasunez eta oztopoz beterik, baina aurrera egiten ari dira alderdi politikoak. Alderdi Unionista garrantzitsuenak ere eseri dira (tamalez, oraindik bi alderdi txiki falta badira ere).

Eta aurrera doa bi erabaki sendo hartu baitutuzte denon artean, hau da: elkarrizketak ari diren bitartean armak utziko dituztela bi aldeetako talde armatuek eta, negoziaketa mahaietan talde politikoek onartzen dutenari buruz, herri kontsulta egingo dutela, herritarren onarpena jasotzen duen ala ez jakiteko. Aurrerakoan adierazten nuen horretarako data aurretik ezarria zeukatela: datorren maiatza. Hau ez al da demokratizian dugun tresnarik egokienetakoa erabiltzea?

Datorren astelehenean ekingo diote, benetan, negoziaketa mamitsuan, aste honetan Erresuma Batuko Alderdi Laborista bere Kongresua ospatzen ari baita. Baliteke Gobernuburua, Tony Blair Jauna bera etortzea. A zer-nolako bultzada emango liokeen prozesuari! Irudikatzen al duzue Aznar Jauna Euskal Herrira etorri eta mahai-inguru batean hemengo alderdiekin -HB barne-elkarrizketari hasiera ematen? Ez da zientzi fikzioa. Litekeena da. Horra iristeko, oztopo asko gaudituz, pauso asko eman behar dira. Ez dut uste inork pentsatuko duenik *chantajearen* aurrean amor eman duelako doala Blair Jauna. Espainiako Gobernuakideek txalotu eta miretsi egin dute jarrera hau baina. Euskal Herriko arazoari dagokionez, *chantajearen* atzaparretan erortzea izango litzatekeela diote. Ba al dago kontrasean handiagorik?

Horregatik, gaur egun ezinezkoa da proposatzen nuen irudikatze hori: ez dugu ameskerietan erori behar; errealitatek abiatu behar dugu, baina zer nahi dugun, nora goazen eta nora heldu nahi dugun garbi ezarri eta, aurrera begira abiatu, konponbidea bilatzen hasi.

Kornerra

Mikel Elorza

Estatutua

■ Estatutua tutu estua dela dirudi, ez duela aurrera egiteko modurik eta tutu zabalagoa jarri behar dela. ELAk esan du hila dela, eta esparru politiko-juridiko berriaren alde egin behar dela. Eta alderdi eta sindikatu abertzaleak bat etorri dira, gutxi edo gehiago, sindikatuaren analisiarekin. «Estatutua eta Amejorramendua indarge agertzen dira gaur egun euskal gizartearen nahikunde eta beharrei erantzuteko» esan du, berriz, ETAre azken agiriak. Ez dut uste Elorrieta epaituko dutenik erakunde armatua berarekin bat datorrelako, baina baieztapenek komunizadura puntuak dituztela begibistakoa da. Erreakzioa ere bai.

Sindikatu eta alderdi espainolek, behintzat, babesleak hartu dituzte. Horrelako aldarrikapenek Ermuko espiritua hautsi eta *Estatutuko espiritua* arriskutsuak eraikitzen baituzte. Euskaldunok ados egoteak Espainian alarma pizten du: *Elkartzea* izan bailiteke hurrengo pausoa, ez ote zaien okurrituko!

L A P I h I T Z A

